

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Txirrindulariek gehien erabilitako Nafarroako lau errepidek arrisku-seinaleak dituzte dagoeneko

38 kartel eta seinale jarri dira 102 kilometroetan bizikleten eta ibilgailu motordunen arteko zirkulazioan bateragarritasuna hobetzeko

Ostirala, 2017.eko azaroak 17

Nafarroako Gobernuak Barne Zuzendaritza Nagusiaren eta Herri Lanetako Zuzendaritza Nagusiaren bidez, 38 kartel jarri ditu txirrindulariek gehien erabiltzen dituzten Nafarroako lau errepidetako 8 tartetan; guztira 102 kilometro dira.

Ekimenaren helburua bide horiek bizikleta eta ibilgailu motordunen erabilerara hobeto egokitzea da. Bideak txirrindularien erabilerara egokitzeko plan baten lehen fasea da, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari Maria Jose Beaumontek [dagoeneko joan den ekainean aurkeztu zuena](#).

Kartelak eta seinaleak gaztelaniaz eta euskaraz daude, eta errepidean txirrindulariak egon daitezkeela ohartarazten du, txirrindulariekiko 1,5 metroko tarte utzi behar dela aurreratzean, abiadura murrizteko gomendioa ibilgailu motordunetarako eta eragindako errepide tartearen luzera.

Seinaleak [8 tartetan](#) jarri dituzte bide hauean: N-135, NA-2330, NA-1720 eta NA-150, guztiak Nafarroako iparraldean, Esteribar, Erro, Artzibar eta Urrotz. Tarteetako batean, Olloki eta Zubiri artean, "Ponle Freno" kanpainaren ondorioz jadanik agertzen den seinalea egokituko da. Jarduera horrek 36.017 euroko aurrekontua izan du.



Jarritako paneletako baten irudia.



Txirrindulariak dauden arrisku-seinalea.

Eskualdea, Erdialdea eta Erribera

Errepidearen tarte horiek egokituta, Barne Ministerioak dagoeneko beste tarte batzuk identifikatu ditu Iruñerrian eta Nafarroako erdialdean, antzeko ezaugarrietako jarduera bat egiteko. Gaur egun, Departamentuak, Nafarroako Txirrindularitza Federazioarekin lankidetzan, Erriberako errepide-tarteetan lan egiten du, txirrindulariek gehien erabiltzen dituzten errepideetan seinaleak jartzeko planaren fase guztiak burutu arte.

2016an diziplina anitzeko lan-talde bat eratu zuen, ingurune seguruagoak lortzeko txirrindularientzat eta bideen gainerako erabiltzaileentzat. Barne Zuzendaritza Nagusiko, Foruzaintzako, Probintziako Trafiko Buruzagitzako, Trafikoko Guardia Zibileko, Herri Lan Zuzendaritza Nagusiko, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko eta Nafarroako Txirrindularitza Federazioko ordezkariak osatzen dute.

Talde-lanean txirrindulariek gehien erabiltzen dituzten bideak identifikatzen dituzte, haien ezaugarriak aztertu, kalifikazio egokia edo desegokia eman bizikletaz ibiltzeko, irizpide tekniko ebaluagarriak kontuan hartuz. Kalifikazio bata ala bestea ezartzeko irizpideen artean daude eguneroko trafiko intentsitatea, ibilgailu astunen bolumena, bidearen hierarkia sarean edo bazterbideen zabalera, bidearen kontserbazio-egoeraz ahaztu gabe.